

LAN ARRISKUEN
PREBENTZIO
ZERBITZUA



➔ HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO LANGILEEI EGINIKO KANPOKO ERASOEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Hezkuntza Departamentua
Giza Baliabideen Zerbitzua
Lan Arriskuen Prebentzio Saila
(INSL) Landaben Industrialdea, E-F k.
31012 Iruñea
Tel. 848 42 37 69 - Fax 848 42 37 38

2012 ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA



JARDUTEKO PROTOKOLOA

Protokolo honek jasotzen ditu zeintzuk diren jarraibideak eta nola jokatu behar den, Hezkuntza Departamentuari atxikiriko langileek erakundeaz aparte pertsonen aldetik (ikasleak, ikasle ohiak, erabiltzaileak, gurasoak, etab.), ondoko erasoetakoaren bat pairatzen badute lanean direla edo lanaren ondorioz:

- ▣ Indarkeria fisikoa
- ▣ Mehatxuak, irainak edo larderiazko jokoerak
- ▣ Kalte materialak


JARDUTEKO PROTOKOLOA

➤ **Eraso fisikoen aurrean nola jardun.** Erasoa fisikoa gertatzen bada, eska iezaiezu laguntza zure lankideei, edo ohartarazi iezaiezu zure ikastetxeko segurtasun zaintzaileari (halakorik izatekotan), zure egoera ezagutu dezan.

Indarkeria egoerak bere horretan badirau, eta erasoaren larritasunaren arabera, eska ezazu kanpoko laguntza **112 larrialdi telefonoaren** bidez.



Lantokian izaten diren kanpo erasoen aurrean jarduteko protokoloa



➔ **Osasun laguntza.** Erasoa fisikoa laneko istripuztat hartzen da. Erasoren ondorioz laguntza eskatzen duen gorputzeko lesioa baduzu, zoaz osasun etxera. Lesioa larria bada, zoaz Osasunbideko zainari larrialdi zerbitzutara. Gainontzeko kasuetan, MUFACEko langileak hautaturiko zentro itundura joan dena, eta Gizarte Segurantzako langileak Mutua Navarraren laguntza zentroetara. Bertan jasoko duzu osasun laguntza, eta dagokizun txosten medikoa eginen dizute.

➔ **Ikastetxeko zuzendaritzari edo hierarkian nagusi denari jakinaraztea.** Erasoa jasan duen pertsonak edo eraso egoeraren berri duen lantokiko/administrazio unitateko zainari kidek ikastetxeko zuzendariari (eta kanpoan badago, zuzendaritzako beste taldekide bati) edo dagokion administrazio unitateko arduradunari jakinarazi behar dio zein den egoera.

Ikastetxeko zuzendariak edo hierarkian nagusi denak, eraso bat gertatzen den aldiro, Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atalekoei jakinaraziko die (Telefonoak: 848 42 32 18 / 680 57 86 49).


Ikastetxeko zuzendariak edo hierarkian nagusi denak, eraso jasan duen pertsonarekin bat, Erasoa erregistratzeko eta jakinarazteko orria bete eta Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atalera igorriko du (Faxa: 848 42 37 38).

Erasoak erregistratzeko eta jakinarazteko orria betetzean, ikastetxeko zuzendaritzak edo hierarkian nagusi denak eraso jasan duen pertsonari laguntza psikologikoa eta lege aholkularitza eskainiko dio. Biak ala biak Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atalak kudeatuko ditu.

➔ **Laguntza psikologikoa.** Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atala harremanetan jarriko da eraso jasan duen pertsonarekin, eta gertakariaren nolokotasunaren arabera, zehaztuko du zer nolako esku hartzea egin behar den kasu bakoitzean.

➔ **Gertakariak salatzea dagokion organoari.** Erasoa jasan duen pertsonak, egoki irizten badiu, dagokion salaketa jar dezake zainari.

➔ **Gertakariak salatzea dagokion organoari.** Erasoa jasan duen pertsonak, egoki irizten badiu, dagokion salaketa jar dezake zainari.



nahi polizia bulegotan (Foruzaingoa, Udaltzaingoa, Guardia Zibila edo Polizia Nazionala) edo zainari organo judizialean (Agoizko, Lizarrako, Iruñeko, Tafallako edo Tuterako guardiako epaitegiak) Salaketa jarri aurretik edo ondoren, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzu juridikoei eraso jasan duen pertsonari lege aholkularitza eskainiko diote.

MEHATXUAK, IRAINAK ETA LARDERIAZKO JOKAERAK

Mehatxuek, irainek edo larderiazko jokoerek Protokolo hau abiaraziko dute jokaera horien larritasunak edota errepikatzeak hala eskatzen duenean. Aurretik, ikastetxeko zuzendaritzak Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atalari jakinaraziko dio egoera.

Hezkuntza komunitatearen bizikidetzaren alorrean izan daitezkeen gora-beherek, ikastetxe bakoitzeko bizikidetzaren plana abiaraziko dute, protokoloa aktibatuz zein ez.



KALTE MATERIALAK

Erasoa jasan duen pertsonari kanpo indarkeria ekintzen ondorioz kalte materialak sortzen bazaizkio bere lanbidean diharduela, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzu juridikoei jakinaraziko zaie.

HELBIDEA ETA TELEFONO INTERESGARRIAK

Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atala
Landabengo poligonoa C/E-F
(Nafarroako Lan Osasunaren Institutua)
31012 Iruña

Erasoa jakinarazteko:	848 423218 / 680 578649
Telefonogunea:	848 423769
Faxa:	848 423738
Hezkuntza Departamentuaren zerbitzu juridikoko Larrialdietarako telefonoa:	848 426512
Mutua Navarra:	112
	900 21 21 00